

AITA LINO EUSKALDUN ETA FEDEDUN (Omenaldi-egunean mezan)

Senideok:

Gaurkoa lako egunak onak izaten dira fedea erriratzeko. Kristiñauen fedea ez da burubide edo ideoloji utsa.

—Gutariko bakoitxaren barru-barruraino sartzen da.

—Errietan alkar-bizitza eratzeko ta indartzeko bideak eskintzen dauz.

Orretarako, lenengo, erria dan lakoa artu bear da, erria ondo ezagutu bear da eta gero, bigarren oinkada lez, Jesus'en ebanjelioa garbi azaldu, lenago ebanjelio ori erriratu dan lekuetan artu dauzan eraskiñak alde batera itzita.

Guztiok dakigu Jesus erri berezi baten jai, azi eta bizi izan zala, erri berezi baten gizatu zala, Israel errian. Baiña Israel'go oiturak ez dira ebanjelioa. Ez ziran gorabera ta eztabaida makalak izan Eleizearen lenengo aldietan arazo au zala-ta: Batzuk kristiñau izateko lenengo Juda'tar izaerea artea eskatzen eben, beste batzuk, ostera Kristo'ren jarraitzaille izatea naikoa zala. Eleiza osoaren batzarra egin Jerusalem'en eta bigarren eritxi ori artu zan ontzat.

Geroago Jesus'en Barri Onak Grezia'n eta Erroma'n izan eban gizatze ori eta lurralde oneitako berezitasunak eta jakinzaletasuna edo filosofia artu eban oiñarri lez, baiña ebanjelioa ez dago oso-osoa greziatarren jakituriagaz eta jakintzagaz batuta, erromatarren legeakaz eta jokabideakaz be ez da osotzen.

* * *

Geroago Jesus'en Barri Ona Euskalerrira eldu zan, milla ta bosteun urte baiño geiago dirala eta etorbidea erromatarrena izan zan, Juda'tarren eraskin asko be aldean ebazala. Fedea euskalerrira sartzean arrisku aundi bi izan doguz:

— Fedea indargetu eta euskal-izateagaz bardintzeko arriskua eta

—Euskalerriri bere izakerea kendu eta fedea izenean beste kultura batzuk sartzeko arriskua.

Orregaitik "euskaldun-fededun" esaten dogunean, arazoa ondo ulertzeko ardura aundia artu bear dogu eta beste erri batzutara fedea zabaltzen dogunean kontuz ibilli fedezagaz batera, nastauta, geure jakintza ez

eroateko. Beste erri guztiai be geure erriarentzat nai dogun itzaltasuna izan bear dautsegu.

* * *

Euskaldunak, fededun biurtzen danean, eta geiago abade edo gotzain biurtzen danean, euskaldunago izan bear dau, bere fedea erria maitatzeko eta indartzeko adorea emon bear dautso. Euskaldunak, Euskalerrian dagoanean, Euskalerria indartu, jakintzaratu eta askatasunera eroan bear dau.

Orregaitik egiten dogu mezea gaurkoa lako egun baten, zeregin ori betetzera alkarrari bultz egiteko, indarra emoteko.

Orretarako egin dau ainbeste lan gure Aita Lino'k bere bizitzan.

Orregaitik eskatzen genduzan aldi baten euskaldunentzat gotzain euskaldunak eta euskalzaleak, eta lortu be egin doguz. Gaur, Ego-Euskalerrian beintzak, gotzain guztiak doguz euskaldunak, naizta Arabakoak eta Napparroakoak euskera berba egiten ondo jakin ez.

Eta orregaitik izan gara euskaldun fededunak aurrean erabiliak. Fedea izenean beste kultura edo jakintza bat sartu nai izan dalako. Ondo daki Aita Lino'k espetxeen barria.

* * *

Euskaldunak, ba, aldi onean eta txarrean, isillean naiz agirian, fededun lez, al dauan neurrian erriaren alde lan egin bear dau, asi erriaren oiñarritik eta gaillurrera eldu arte:

—Dima'ko euskera gozoa ta ederra indartu, Oba'koa naiz Lamindao'koa naiz beste edozein auzotakoa, gozotasuna dauan euskera ta jakintza ta oiturak indartu.

—Bizkai'ko euskerearen edertasuna landu ta zaindu. Nork irabaziko leuke Bizkai'ko euskera galtzeagaz erdel-dunak izan ezik?

—Euskera dan lakoa aberastu ta egokitu, izkera barriak asmatzen asi barik. Euskalki guztiak ondo ezagutuak eta landuak diranean, euskaldunak euskera ondo ezagutzen dabenean, orduan euskera batua bearrezkoa ba'da, etorriko da, erriak berak sortuko dau.

Alegindu gaitzan ba, fededun lez eta euskaldun lez bizitzen eta erriari laguntzen.

OLAZAR'tar MARTIN'ek